



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Batzar Nagusiek eskaerea egin deustie Aldundiari, BI-625 errepideko Zabalbide-Bolueta zatiaren eraikuntza proiektua azkartu daian**

Bilbon, 2014ko zezeilaren 21ean.

Batzar Nagusiek eskaerea egin dabe, Aldundiak, Bilboko Udalagaz alkarlanean, BI-625 errepidearen Zabalbide-Bolueta zatiaren eraikuntza proiektuaren idazketa azkartu daian. Lan horrek jarraipena emongo leuskio orain urte batzuk Zumalakarregi Etorbidean egindako goitik beherako birmoldaketari. PP taldeak aurkeztu dauen eta popularren eta PSE-EE eta EH Bildu taldeen aldeko botoakaz gaur Herri Lan eta Garraioetako batzordean onartu dan Arauz besteko proposamenak eskaerea egiten deutso Foru Aldundiari, proiektu hori “errazoizko” epean hasi daian. Lana egin eta gero, Bilboko udalerria izango litzateke Bilbora sartzeko zati horren jaubea.

PP taldeak Txurdinagako Biztanleen Alkarteko “errebindikazinoa” eroan dau batzordera. Alkartek “8 urte daroaz proiektuaren zain”, Jesus Isasi popularrak esan dauenez. Errepide horrek Otxarkoagako, Txurdinagako eta Santutxuko “80.000 biztanleri” emoten deutse zerbitzua, eta bertatik “25.000 ibilgailu igaroten dira egunero”, eta horreetatik “%4 astunak dira”. Isasik bertako biztanleen eskaerea bideratu dau, “errazoizko” epean, BI-625 errepidearen eta Fernando Jiménez DYako kidea kalearen arteko sarbidea egin daian, Txurdinagako atzekaldean, Aldundiaren esku dagoan Egoitzaren aurrean, proiektauta dagoan biribilgune barriaren bitartez.

PSE-EE eta EH Bildu taldeek bat egin dabe Bilboko sarbide hori goitik behera barriztetako proiektua bultzatzeko ideagaz. Joaquín Colmenero batzarkide sozialistaren eretxiz, ganera, sarbide horren egokitzapenak errepideko “puntu baltz bat ezabatzeko” balioko leuke, bere berbetan, zati horretan “hildakoak eragin dituen” istripuak egon diralako, errepide horretako abiadura mugea orduko 50 km-koa dan arren.

EAJ-PNV abstenidu egin da bozketan, baina generako taldeakaz bat etorri da, errepideko lanak Bilboko auzo horreentzat “interesgarria” dan uri egiturea osotuko leukela esatean. Dana dala, uste dau proiektuaren idazketea eta lanak gaur egungo egoera ekonomikora “egokitu” beharko litzatekezala. Talde horren ustez, lan horrek ez dauka lehentasunik, gaur egungo errepideak “bere funtzionaltasuna beteten dauelako”. Ganera, proiektuaren barruan, “Aldundiaren eskumenetatik kanpo dagozan” Udalaren jarduketak sartu behar dira, BI-625 errepidearen zati horri emon gura jakon uri barruko izaerea dala eta, uriko altzariak instalauz, espaloiak zabalduz edo lorategiak eginez.

BGP-CTB-k 81.349 PERTSONARI ESKINI EUTSEN ARRETEA, BARIK TXARTELA DALA ETA

PP taldeak eskatuta, Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako foru diputatua batzordearen aurrean agertu da, Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP-CTB) kudeatzen dauen “ukipen bako”



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

euskarridun Barik txartelak garraio erabiltzaileen eta operadoreen artean sortu dituan “erreklamazioen” eta “kexen” inguruko azalpenak emoteko.

Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, Partzuergoak 81.349 pertsonari eskini eutsen arreteta 2013an, bide guztiak kontuan izan da, lurraldeko garraio publiko gehienetan bidaiatzeko balio dauen ukipen bako txartela dala eta. Horreetatik %3,9k “iradokizunak eta erreklamazioak” aurkeztu ebezan. Diputatuak emondako datuak kontuan izanda, BGP-CTB-k ez dau kexa edo erreklamazio formalik jaso garraio operadoreen aldetik. Erabiltzaileek aurkeztutako “hamar erreklamazioetatik sei” urteko lehenengo hilebeteetan aurkeztu ziran, Creditrans sistema magnetikoa eta Barik txartela batera egozan bitartean. Une horretan “pixkanaka eta modu esponentzian”, bidaiariak sartu ziran “ukipen bako” sistemara. Denporea igaro ahala eta erabilerara ohitu eta gero, “kontsultek jatsiera nabarmena izan dabe. Horrek, beste ezer baino lehen, Bizkaian arrakastaz ezarri dan sistemaren garaipena erakusten dauela”, esan dau.

Diputatu andreak zehaztu dauenez, izaera ekonomikoa daukien erreklamazioetan, kopuru desegokiak kobrotegaitik jasotakoetan, BGP-CTB-k SMS edo posta elektronikoko bitartez erantzuteko sistema jarri dau martxan, erabiltzaileari modu desegokian kobrutako kopurua itzuli jakola jakinarazoteko. Erabiltzaileak, egindako sarrerea egiaztaun ahal izango dau Barik sistemaren barruan dagozan garraio bideen salmenta makinetan edo makina baliogabetzaileetan bere saldoa kontsultatean. Garamendik adierazo dauenez, erreklamazio “guztiak” erantzun dira, eta “kasu positiboetan”, aitatu dan prozedurari jarraituz ordaindu dira.

#### PREZIO ALDAKETAK ERREPIDEEN MANTENTZE LANETAKO KONTRATUETAN

Horrez gain, Itziar Garamendi EH Bilduk eskatuta be etorri da Bizkaiko Batzarretara, Bizkaiko hainbat errepidetako kudeaketarako eta ustiapenerako kontratuetan egindako prezioen “azkeneko egokitzapenak” azaltzeko. Beste ezer baino lehen, diputatu andreak, 31,6 milioi euroengaitik lizitatu zan eta hasierako kontratuagaz alderatuz 12.639.462 euro (koalizio abertzaleak bere agerraldi eskarian salatutakoa baino apur bat gehiago) garestitu dan “Ahalmen Handiko Sarearen Kontserbazioa eta Ustiapena, Mantentze lanak eta Operazioa” kontratua aitatu dau.

Diputatu andreak azaldu dauenez, aldaketa hori hiru faktorek eragin dabe. Alde batetik, kopuruak aldaketa bi jaso ditu, BEZ zergea hiru puntu igon dalako (%18tik %21era). Aldundiak, 129.200 euro gehiagoko fakturak ordaindu behar izan ebezan 2012an eta 152.542 euro gehiagokoak 2013an. Beste alde batetik, kontratuan aldaketak egon ziran “neurri handiko” istripuek eta meteorologia fenomenoek ondoriozko kalteek sortutako “ezusteko gertakariak” zirala eta. Eta, bukatzeko, kontratua aldatu egin zan, batez be, mantentze lanetako kontratua urtebete luzatu zalako, pleguan adierazoten dan moduan. Azkeneko aldaketa horrek 11,1 milioi euroko garestitzea eragin dau, 2013ko aurrekontuen kargura.

Gerediaga-Elorrio errepideari jagokonez, diputatu andreak argitu dauenez, errepide horren emakidadunari egin behar jakon “Prestasunaren ondoriozko ordainketea” 2042. urtera arte luzatuko da, eta kopurua 34,2 milioi eurokoa izango da urtean, “gehienez”. Aldundiak ordainketak hileroko egiteko konpromisoa eta prezio horreek urtero aztertze konpromisoa hartzen dau. Prezioak, kontratuan zehazten diran eta errepidearen egoereagaz,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

kontserbazinoagaz eta mantentze lanakaz erlazionautako “18 adierazleren” arabera aztertuko dira.

Oposizinoak kritikau egin dau Batzarretako taldeek eskatu behar izana Garamendi Batzar Nagusien aurrera etortzea holango aldaketa ekonomikoak argitzeko, ekimena berak hartu beharrean. Diputatu andrea bertan egoteaz baliatuta, EH Bilduk barrero kritikau dau Gerediaga-Elorrio errepidearen eraikuntzak ia ehun milioi euroko “gainkostua” izatea. “Hasierako 225 milioi euroko aurrekontutik, 318 milioi eurora igon da”. Aitor Torre koalizino abertzaleko batzarkideak kritikau egin dau, ganera, Aldundiak “1.762 milioi euro” gastauko dituala guztira, “6,4 kilometro” baino ez dituan errepide zatian, eraikuntza lanak eta 2042ra arteko errepideko mantentze lanak dirala eta. Nerea Ahedok kritikau egin dau Torrek “kontzeptuak–eraikuntza eta kontserbazinoak– nahastu egiten dituala, Aldundiak emondako azalpenetan zalantzak sortzeko helburuagaz”, bere eretxiz azalpen horreek “argiak” diralako.

Foru diputatu andreak, Aldundiak enpresakaz eta ABEE-UTE-ekaz dituan beste kudeaketa eta kontserbazino kontratu batzuk be aitatu ditu, lurraldeko hainbat errepideren mantentze lanak dirala eta. Holan, 9,2 milioi euro ordainduko ditu urtero, 2020. urtera arte, AP-8 autopistaren Urigoitiko bidekurutzearen eta Gipuzkoako mugaren arteko zatiaren kontserbazino eta ustiapena dirala eta; Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarrak eta Artxandako tunelek 8,1 milioi hartuko ditue urtero Aldundiaren kutxatik; eta 1., 2. eta 3. gunetarako indarrean dagozan kontserbazino kontratuek 1.002.668, 947.721 eta 994.774 euroko gastua eragingo dabe, hurrenez hurren, ekitaldi honetan, apirilera arte.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales piden a la Diputación que acelere el proyecto de construcción del tramo Zabalbide-Bolueta de la BI-625**

Bilbao, a 21 de febrero de 2014.

Las Juntas Generales quieren que la Diputación, en colaboración con el Ayuntamiento de Bilbao, acelere la redacción del proyecto constructivo del tramo Zabalbide-Bolueta de la BI-625, que daría continuidad a la remodelación integral llevada a cabo años atrás en la avenida Zumalakarregi. Una proposición no de norma presentada por el PP, y aprobada hoy en la comisión de Obras Públicas y Transportes con los votos a favor de populares y de los representantes del PSE-EE y EH Bildu, insta a la institución foral a iniciar este proyecto en un plazo "razonable". Su ejecución conllevaría que el municipio bilbaíno pasase a ser el propietario de este acceso a la capital vizcaína.

El PP ha trasladado a la comisión una "reivindicación" de la Asociación de Vecinos de Txurdinaga que lleva esperando "8 años el proyecto", según el popular Jesus Isasi. Es una carretera que da servicio a "80.000 vecinos" de Otxarkoaga, Txurdinaga y Santutxu y por la que circulan "25.000 vehículos diarios", de ellos, "el 4% pesados". Isasi ha traslado la petición de los vecinos para que en un plazo "razonable" se reforme esta vía de acceso a la capital vizcaína que permitirá, entre otras cosas, crear un acceso directo desde la BI-625 a la calle Fernando Jiménez Miembro de la DYA, mediante una nueva rotonda que se proyecta en la trasera del polideportivo de Txurdinaga y frente a la Residencia de la Diputación.

PSE-EE y EH Bildu se han sumado a la idea de impulsar el proyecto de reforma integral de esta entrada a Bilbao. Para el apoderado socialista Joaquín Colmenero, la adecuación de este acceso serviría además para "eliminar un punto negro" viario, ya que –según él– en este tramo se han registrado "accidentes mortales", pese a que el límite de velocidad por esta carretera está fijado en los 50 km/h.

El PNV, que se ha abstenido en la votación, ha coincidido con el resto de grupos en que la obra viaria completaría una malla urbana "interesante" para estos barrios de Bilbao, si bien creen que se debe "adecuar", tanto la redacción del proyecto como las obras, a la situación económica. Para este grupo, esta obra no es prioritaria, ya que la actual carretera "mantiene su funcionalidad". Además, el proyecto debe incorporar actuaciones municipales "alejadas de la competencia foral" por el carácter urbano que se pretende dar a este tramo de la BI-625 con la instalación de mobiliario, aceras más anchas o espacios ajardinados.

**EL CTB ATENDIÓ A 81.349 PERSONAS POR LA TARJETA BARIK**

A petición del PP, la diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha comparecido en la comisión para ofrecer explicaciones en torno a las "reclamaciones" y "quejas" que la tarjeta Barik, soporte "sin contacto" gestionado por el Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB), ha generado entre usuarios y operadores de transporte.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La responsable foral ha indicado que el Consorcio atendió durante 2013 a 81.349 personas a través de diferentes canales en relación con el billete sin contacto que sirve para viajar en la mayoría de los transportes públicos del territorio. De ellas, un 3,9% presentó “sugerencias y reclamaciones”. Según los datos facilitados por la diputada, el CTB no ha recibido quejas o reclamaciones de carácter formal por parte de los operadores de transporte. “Seis de cada diez” de las reclamaciones efectuadas por los usuarios se formularon en los primeros meses del año cuando todavía convivían el sistema magnético Creditrans y la tarjeta Barik, momento que coincidió "de forma progresiva y exponencial" con nuevas incorporaciones de viajes al sistema “sin contacto”. Con el paso del tiempo y la costumbre en su uso, "es notable el descenso en las consultas, lo que supone, por encima de todo, un triunfo de este sistema, implantado ya con éxito en Bizkaia", ha dicho.

La diputada ha concretado que en las reclamaciones de carácter económico, las recibidas por un cobro indebido, el CTB ha implantado un sistema de respuesta a través de SMS o correo electrónico, para comunicar al usuario el reintegro del cobro incorrecto. El usuario comprobará el ingreso realizado al consultar su saldo en las máquinas expendedoras o canceladoras de los medios de transporte adheridos al sistema Barik. Garamendi ha señalado que “todas” las reclamaciones han sido contestadas y, “en caso positivo”, abonadas de acuerdo a este procedimiento.

#### MODIFICACIÓN DE PRECIOS EN CONTRATOS DE MANTENIMIENTO DE CARRETERAS

Asimismo, Itziar Garamendi comparecía en la cámara vizcaína a petición de EH Bildu para explicar los “últimos reajustes” de precios realizados en diferentes contratos para la gestión y explotación de distintas carreteras de Bizkaia. En primer lugar, la diputada se ha referido al contrato de “Conservación y Explotación, Mantenimiento y Operación de la Red de Alta Capacidad”, licitado por un importe de 31,6 millones de euros, el cual ha experimentado un incremento de 12.639.462 euros respecto al contrato inicial, un poco más de lo que la coalición abertzale denunciaba en su petición de comparecencia.

Según la diputada, esta variación se ha debido a tres factores. Por un lado, el montante ha sufrido sendas modificaciones debido a la subida del IVA en tres puntos (del 18 al 21%). La Diputación tuvo que hacer frente a facturas con incrementos de 129.200 euros en 2012 y de 152.542 en 2013. Por otro lado, hubo modificaciones del contrato por “contingencias imprevistas” ocasionadas por accidentes de “grandes proporciones” y daños por fenómenos meteorológicos, que han incrementado el coste de mantenimiento en 1,2 millones de euros. Y, por último, el contrato se modificó en mayor medida por la prórroga del contrato de mantenimiento en un año, tal y como viene recogido en el pliego, que ha supuesto 11,1 millones de euros con carga a los presupuestos de 2013.

Con respecto a la carretera Gerediaga-Elorrio, la diputada ha aclarado que el “Pago por Disponibilidad” para la concesionaria de esta carretera se establece hasta el año 2042 a raíz de 34,2 millones de euros “máximo” al año. La Diputación se compromete a realizar pagos mensuales y a revisar estos precios anualmente en función de “18 indicadores”, detallados en el contrato, que tienen que ver con el estado, conservación y mantenimiento de la carretera.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La oposición ha criticado a Garamendi el hecho de que tengan que ser los propios grupos junteros los que pidan su comparecencia en Juntas Generales para aclarar este tipo de variaciones económicas y no sea ella misma la que tome la iniciativa. EH Bildu ha aprovechado la presencia de la diputada para criticar nuevamente que la Gerediaga-Elorrio tiene un “sobrecoste” constructivo de casi cien millones de euros. Ha pasado “de 225 millones de euros de presupuesto inicial, a 318 millones”. El apoderado de la coalición abertzale Aitor Torre ha criticado que la Diputación gaste, además, “1.762 millones de euros” en total -por la construcción y por el mantenimiento de esta carretera hasta el año 2042- para un tramo de “apenas 6,4 kilómetros”. Nerea Ahedo ha criticado a Torre que “mezcle conceptos –construcción y conservación- con la intención de generar un velo de duda” en las explicaciones de la Diputación, que ha calificado de "claras".

La diputada foral se ha referido también a otros contratos de gestión y conservación que la Diputación mantiene con empresas y UTEs para mantener distintos viales del territorio. Así, abonará 9,2 millones de euros anuales, hasta el año 2020, por la conservación y explotación de la AP-8 entre el cruce del gallo y el límite con Gipuzkoa; la Variante Sur Metropolitana y los túneles de Artxanda absorberán 8,1 millones anuales de las arcas forales; y los contratos vigentes de conservación de las áreas 1, 2 y 3, implicarán un gasto de 1.002.668 euros, de 947.721 y de 994.774, respectivamente, durante este ejercicio, hasta el mes de abril.